

Andres Urdaneta

39° ko ipar-latitudean, marra desiratu

Andres Urdanetaren (1508-1568) figura ez da behar bezala onartu. Filipinetatik Amerikara itzultzeko bidea trazatu zuenean, Ordiziako nabigatzaileak munduko ekonomia eta geopolitika aldarazi zuen aurkikuntzarekin, portugaldarren zoritxarrerako. Horrela, Manilako Galeoiaren bidez eta haizearen laguntzaz, Espainiako inperioa espezie eta diruz aberastu zen. Baina nor akordatzen da Kolon ezezagun honetaz?

URKO APAOLAZA

500 URTE DIRA kosmografo gipuzkoarra jaio zela. Ordizian, bere sorterrian, urtea bete ekitaldi antolatuta, hainbat hitzaldi, erakusketa eta kongresurekin. Iaz eman zioten hasiera “Urdaneta urteari”, izan ere, oraingo ez dakigu zehazki noiz jaio zen, 1507an edo 1508an –beste batzuek, errorez, 1498an jaio zela badiote ere–. Inaugurazioa Filipinetako presidentea, Gloria Macapagalen eskutik egin zen, ikusmin handiz gainera, estatu-kolpea jasan berritan baitzen herrialde asiarra.

Historiako pertsonaia askorekin gertatu bezala, urteurrenaren ingurumarian soilik akordatzen dira erakunde eta elkarteak euren seme-alabez. Ehun urtetik behin-edo. Duela mende pasatxo jaso zuten Ordizian Urdanetaren omenezko monumentu ikusgarria (ezkerrean), Isidoro Uribealgok egin. Baina eskulturak geografoaren dohainak erakutsi beharrean, ebanjelizatzailearenak nabarmentzen ditu, Gipuzkoako Aldundiak horrela eskatu baitzuen eskultoreari.

Aitzitik, Urdanetaren biografo Jose Ramon de Miguelek “gizon moderno” izan zela dio, inolaz ere beste konkistatzaile edo misiolari klasikoak bezalakoa, baina tamalez, monumentuak irudikatutako azkeneko ikuspegi hori geratu da denen begi-ninietan; batzuek *santu beltza* deitzen diote oraindik, egin kontu. Horregatik, bosgarren mendeurrenaren antolaketa batzordeak ahalegin handia egin du Andres Urdanetaren alderdi zientifikoa aldarrikatzeko, Magallanes edo Kolon bezalako itsasgizonen mailara eramanez: “Urdaneta ezagunagoa da Filipinetan Euskal Herrian baino” esan zuen Ordiziako alkate ekitaldien aurkezpenean.

Gaztaro ezezaguna

Andres Urdanetaren gaztaroa Aro Modernoko jatorri nabarretan lurruntzen da. Ez dakigu zein etxetan jaio zen; ezezaguna zaigu non ikasi zuen; ezin jakin zein bizimodu egin zuen lehen urteetan. Gurasoak leinu jatorrekoak ziren. Aita, Juan

Ochoa Urdaneta, Villafrancako (Ordizia) alkate izana, eta ama, Grazia Zeraingoa, burdingintzari lotutako familia batekoa, Legazpi konkistatzailearen ahaidea. Horrelako askaziarekin, nekez imajina dezakegu gure kosmografoa bizitza oparoran hazia ez besterik. Ordiziako Oiangueren baserrian sortu zela dio herri jakintzak, herri guneko Urdaneta etxean historiagileek. Antza, familiak itsasertzera egin zuen gero, negozioaren ezkilak entzunik.

Gaztelako Erresumaren loraldia da, Austriarren inperioak ez du mugarik, ezta mundu berriak muturrik, eta euskaldunak bete-betean dabilta itsas karrera horretan sartuta. Urdanetaren lehen berri zehatzarekin mutikoa gizontxo bihurturik zaigu, 1525ean. Hainbat iturrik diote lehenago Flandesen ibilia dela, tertzioan, baina ez da segurua. Urte horretan Jofré Loaysak agindutako espedizio batek Ekialdeko Indietara bidaiatzen du, bost urte lehenago Magallanesek aurkitutako hegoaldeko pasabidetik barrena. Espedizio horretan Elkano getariarra aurkituko dugu kapitain eta haren lagun-tzaile Urdaneta bera dabil.

Idatzitako memorieta hutsune kronologikoak antzematen dira, ez zuen sekretua aineratu nahi

Non ote daude Portugalen kendu zizkiten paperak?

Ordiziarraren lehen itsasaldi hori erabakigarritzat jotzen dute adituek. Bidaia arriskutsua izan zen. Elkano eta Loaysa hil egin ziren eta itsasontzi bakarra salbatu zen ekaitz, gose eta izurriteetatik. Enbatari iraun ziotenak bederatzi urtez egon ziren Moluka uharteetan harrapatuta –gaur egun Indonesia–; ekialdera montzoien gatibu eta mendebaldera portugaldarren esklabo. Denbora horretan guztian Urdanetak interes bizia erakutsi zuen geografia eta hizkuntzak ikasteko. Alegia, informazio baliotsua bildu zuela inguruko lurralde eta leku estrategikoei buruz –Japonen ere izan omen zen–. Gerora, Carlos I.a Enperadoreari idatzitako memorian honela dio gazte letradunak: “...estaban en Maluco portugueses y tenyan una fortaleza con mucha artilleria e nabios y fustas y grande



TALLERES

Mitxelena s.coop.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000 · Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago poligonoa, 21 · Hernani -Gipuzkoa-

☎ 943 552 512 / 552 516 · Fax: 943 552 816 · info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

armada de moros, sus amygos cada bez que lo abian menester?. Borroka latzak izan zituzten portugaldarrekin, eta horietako batean Urdanetak, gorpuzak su harturik, itsasora bota behar izan zuen bere burua. Zauriak betiko izan zituen azalean.


Funtsean, bi inperioen arteko lehia zegoen jokoan, norik Asiako merkataritza eskuratuko, Tordesillaseko tratatua eta Aita Santuaren dohaintza buldak tarteko. 1532an Gaztelak uharte haiek saldu zizkion Portugali eta Urdanetak etxera itzultzea negoziatu zuen. 1535ean iritsi zen Lisboara, argal, zarpail eta Gracia izeneko alaba batekin, baina ez zuten gupidarik izan berarekin, urte horietan guztietan idatzitako informazioa kendu baitzioten: “*Al tiempo del desembarcar me tomaron las guardas del Rrey de Portugal la rrelaçion y la carta que traya para Vuestra Magestad...*” azaltzen dio euskaldunak Carlos I.ari. Dokumentu horiek ez dira inoiz agertu, jakingo; al dugu inoiz nondik atera zuen 30 urte beranduago Filipinetatik Amerikara itzultzeko giltza?

Agustindarra bai, baina zeruan izarrak

Ordiziako kultur etxean Urdanetari buruz antolatu duten erakusketa batean itsasgizonak erabiltzen zituzten nabigazio tresnak ikus daitezke. Erraz irudika dezakegu gure nabigatzailea, koadrantea eskuan eta itsas-karta aurrean, ozeano zabalean marra desiratua tindatzen. Lisboatik Gaztelara hanka egitean, Indiako Kontseiluan azalpenak eman behar izan zituen, baina idatzitako memorietan (www.andresurdaneta.org webgunean irakurgai) hutsune kronologikoak antzeman daitezke, ez bide zuen bere sekretua aineratu nahi.

Urte batzuk beranduago, Pedro Alvarado konkistatzaile badajoztarrarekin Nueva España-ra joan zen espedizio berri bati ekiteko. Espedizio bat antolatzea ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula. Dirua behar zen batez ere, esperientzia ere bai, eta administrazio inperialaren faborea, jakina; hori guztia ausardia pixka batekin. Azken finean, arrisku handiko enpresak ziren, etekin itzela izan zezaketen UTE modukoak. Esaterako, Elkanok munduari bira eman zionean, iltze-espeziez betetako ontziak 25.000 dukateko irabaziak ekarri zizkion koroari. Ez da harrizkoa anbizioa eta interesa piztea horrelako bidaiak: “Familia garrantzitsuetako kideak ados jartzen ziren merkatal konpainia boteretsuak sortzeko”, dio Jose Antonio Azpiazu historialariak.

Baina Alvarado Mexikon hil zen eta espedizio buru berriak, Villalobosek, lurtean utzi zuen Urdaneta, 1542an. Ez da esan beharrik bidaia porrot galanta izan zela; Villalobosek 30°ko ipar latitudea ukitu zuen, baina ez gehiago, ondoren montzoiaren bazka izan zen. Bitartean, Andres Urdanetak agustindarren mantua jantzi zuen Mexikon. Ez dakigu zerk eraman zuen erabaki hori hartzera, baina badakigu koloniako admi-



Mundua bitan banatua

1494an Carlos I.a enperadore espainiarrak eta Juan II.a Portugalekoak mundua bitan zatitu zuten Tordesillaseko hitzarmenaren bidez. Mendebaldeko hemisferioa gaztelarrentzat eta ekialdekoa portugaldarrentzat. Filipinak Portugalen menpe zeuden, baina Espainiako erregeek leku estrategiko horiek konkistatu zituzten Txinako kolonialen merkaturia bereganatzeko.

Txina
(Espezieak, zetak...)

Filipinak

Moluka
uharteak

Lisboara

Ozeano Bareko karrera

Korronte desiratuaren bila (1565)

Urdanetak itzulera bidaiari aurkitu zuen, ipar-ekialdera egin, 39°ko ipar latitudera iritsi eta Kuro-Shivo korrontean sarturik. Bidaiari horretan hainbat maniobra arraro egin zituen gora eta behera; badirudi Toledoko latitudea aurkitu nahi zuela, orduko itsasgintzaren erreferentzia nagusia. Lehen bidaiari hark "Manilako Galeoia" izeneko merkataritza ibilbideari paso eman zion, 2.000 tona pisatzen zituzten itsasontziek ekialdeko espezie eta oihalez bete zuten Europako merkaturia eta Espainiako Koroa izugarri aberastu zen horri esker.



Sarriegiren margoa itzulera bidalaz. Urdaneta agustindarrez jantzita ekialtzari aurre egiten

Haize eta itsasoaren menpe

Gaztelarrak behin ekialdeko Indietara iritsita "salduta" geratzen ziren: ekialderago portugaldarrak zeuden eta Amerikara itzultzeko modurik ez zuten itsas korronteen eta montzoien erruz. Urdaneta baino lehenago beste lau nabigatzaile saiatu ziren Amerikara itzultzen, guztiek porrot egin zuten.

Eskarmentuaren bidaiari (1525-1535)

A Coruñatik abiatu eta Magallanes itsasartearen pasatuta Molukara iritsi zen Urdaneta. Bederatzi urtetan itzulera bidaiari egiteko informazioa eskuratu zuen ordiziarrek. Badirudi Japonen ere izan zela eta zantzuak daude pentsatzeko han ikasi zuela Amerikara nola itzuli.

Loyasaren bidaiariaren hasiera, Ugartek egina. Elkanok eta Urdanetak parte hartu zuten espedizio horretan.



Navidad

Acapulco

A Coruñatik

Magallanes

Gaztelera idatzi eta euskaraz pentsatzen zuen poliglota

Orain arte ezagutzen diren Urdanetaren testuak gaztelera daude idatziak, ez da ezagutzen euskarazkorik. Hala ere, pentsatzekoa da Goierrin jaioa izanik euskara zuela ama-hizkuntza bakarra.

Mikel Aramendi kazetariak Ordizian emandako hitzaldian azaldu zuenez, Urdanetak gaztelera idatzi bai, baina euskaraz pentsatzen zuen. Bere testuetan euskaratik moldatutako gaztelera esaldiak suma daitetzeke: *para dar presa* = presa

sartu, *puercos monteses* = basurde... Zenbait hitz asmatu egiten ditu (*atracionados, comblir...*) eta askotan, lehengo euskaldun zaharren moduan, generoa eta zenbakia ez ditu bereizten (*vnas peçes mayor que*



sardinas). Bestalde, Urdanetak bere idazkeran Erdi Aroko gaztelera hainbat esamolde desagertu erabiltzen ditu, euskaraz iraun dutenak. Askotan, testuen transkribatzaileek ez zuten idazkera xeble hori ulertzen eta biografoek idatziak ulertzeko problemak izan zituzten Aramendiren hitzetan.

Dena den, Urdaneta poliglota izan zen, malasyera eta Malukoko hizkuntzaren bat ikasi baitzuen bere lehen bidaian eta horrek asko lagundu zion.

nistrazio lanetan urte mordo egin arren izarrei begira jarraitu zuela.

GPSrik gabe, enarak bezala

Sasoi horretan hainbat aldiz saiatu ziren espainiarrak Filipinetatik Amerikara itzultzen; beste hainbeste frakaso. Behin ozeanoa gurutzatuta “itzultzea” ezinezkoa zela zirudien, ez omen zen posible montzoiaren indarra gaintzea. Baina erreinaldia estreinatuz Felipe II.aren belarrietara Urdanetaren izena iritsi zen, nabigatzaile bikain eta estimatua zen ordurako ordiziarra. Horrela, 1558an bidaia berri bat preparatzeko agindu zion erregeak, ondoren itzulera egiteko: “*Según mucha noticia que voz diz que teneis de las cosas de aquella tierra y entender como entendeis las cosas de la navegacion y ser un buen cosmografo, seria de grande efecto que vos fuésedes en los dichos navios...*”.

Urdanetak bazekien Filipinak –Felipe II.aren irlak– portugaldarren eremuan zeudela, Tordesillaseko tratatuaren mugak ondo ezagutzen zituen-eta. Hala ere, espedizioa koordinatzeari heldu zion hainbat erabaki adoretu hartuz. Bat: barkuak Pazifikoko Navidad portuan (Mexiko) eraikiko ziren, Magallanesko pasoa ebitatzearen. Bi: joaneko bidaia udaberrian egingo zen eta itzulera udaran, montzoiaren astindua ez jasateko. Marinelak, jakiak, ibilbideen trazatuak... Bost urteko plangintza-oren ondoren espedizioa 1564ko azaroaren 21ean atera zen.

Ebidentea da lurralde baten konkistara abiatu zirela, zilegitasunik gabeko konkista: hainbat itsasontzi, ehunka soldadu, hornidurak... Miguel Lopez Legazpik zuen ardura militarra eta hark agindu zuen Filipinetako irlak arakatu eta gero Cebú izeneko lekuan behin betiko asentatzea. Urdanetak ez zuen denborarik galdu, *San Pedro* ontzia karentatu ondoren Amerikara itzultzeko bideari ekin zion. Bidaia horren burua Felipe Salcedo zen –Legazpiren biloba–, pilotuak Esteban Rodriguez eta Rodrigo Espinosa, baina benetako gida Urdaneta bera dugu.

Cebútik Luzonera eta hortik irla ñimiño batzuk itsaso zabalean, besterik ez. Ipar ekialdeko ibilbide ustez kamikazea hartu zuten eta Kuro-Shivo korrontearrekin topatzen problemarik gabe iritsi ziren putzuaren bestaldera, Acapulcora. Guztira lau hilabete, zazpi egun eta 2.000 legoa, eskorbuto kasurik bat ere ez, uste-kabeak zero. Urdanetaren itsas jakintza magistrala izan zen.

Iritzi aldaketa eta Inperioaren interesak

Tripulazioaren koarentena logiko baten ostean –inork mingaina dantzan jar ez zezan portugaldar edo holandarren aurrean– Urdaneta Gaztelara itzuli zen, Filipinen eta Moluken kokapenari buruz iritzia ematera. Sei urte lehenago pentsatzen zuenaren kontra, lurralde horiek enperadorearen lurraldeen barruan zeudela esan zuen orduko hartan: “*...digo que las dichas islas (...) [están] dentro de la demarcacion de vuestra magestad, con otras muchas islas y tierras...*”. Kosmografo askoren iritzia jaso zuen Felipe II.ak, denak Gaztelaren alde egitera makurtuz, eta jakina, Urdanetak ez zion bere buruari harriska egin. Ondoren Mexikoko San Agustin komentura itzuli zen eta han hil zen 1568an.

Urdanetak aberastasunaren atea ireki zizkion Gaztelari. Ez zen bidaia inprobisatua izan, ezta erokeria edo kasualitatea ere; bere idazkietan arrunt ongi demostratzen ditu koordenadak, latitudeak, ekinozioak... Ordiziarrek bazekien zer egiten zuen. Baina nondik atera zuen informazioa? Japoniarrengandik? Misterio bat da. Agian Parisko Liburutegi Nazionaleko bere bitakora-koaderno hondatu eta irakurtezinean egongo da erantzuna, edo Portugalgo paper galdutan. Dena den, Legazpik aitortu zuen bezala, betiko izango da itsasoen ezagutzari argia eman ziona: “*E nos diese lumbrre, si no fue la suya*”. ■

Ez zen bidaia inprobisatua izan, ezta erokeria edo kasualitatea ere, ordiziarrek bazekien zertan zebilen

www.argia.com/bideoak
helbidean, erreportajearen bideoa.